



**M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDALAREN
IDAZKARI NAIZENAK**

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2021eko uztailaren 28an, beste batzuen artean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

**OIARTZUNGO UDALEAN ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA
EZARTZEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ONARPENA.**

Sektore Publikoaren funtzionamendu elektronikoari buruzko arauketaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean jasota dagoenak, Udalek ahalegina egin behar dute egokitze-prozesu bati ekiteko, beren arteko harremanak bitarteko elektronikoaren bidez bideratzeko aukera duten herritarrei eta erakundeei eskaintzeko.

Aurtengo apirilaren 2an gainera aipatu 39/2015 Legearen zenbait aspektu, sarbide orokor elektronikoa, egoitza eta erregistro elektronikoak, herritarren laguntzarako gaituriko funtzionarioen erregistroa eta ahalordetzeen erregistroa, erabat indarrean sartu dira, udalaren funtzionamendua eta antolaketa jardun elektronikora egokitzeko beharra areagotuz.

Era berean, bitarteko elektronikoz sektore publikoaren jardun eta funtzionamendua arautzeko Erregelamendua, 203/2021 E. Dekretuz onarturikoa, indarrean sartu da eta tresnak martxan jartzeko irizpide zehatzak eman dira.

Une honetan, Oiartzungo Udalak harreman elektronikoak izateko aukera eskaintzen die herritar, entitate eta erakundeei. Egoitza elektronikoa eratu da, derrigortutako kolektiboekiko (sarrera eta jakinarazpen elektronikoak eginarazten eta egiten zaie), baita horrela eskatzen duten herritarrekiko ere. Era berean, Udalaren funtzionamendu eta prozedura administratiboa modu elektronikoan arautzeko Ordenantza idazketa fasean dago eta elkarreraginkortasuna gauzatzeko pausuak ere martxan dira.

Horrekin batera ordea, betiko egiturak eta antolaketa egokitu dituen plangintza beharrezkoa ikusi da eta horretara dator idatzi den Plan Estrategiko hau, 8 helburu estrategiko eta horietako bakoitzean antzemandako helburu operatiboetan sailkatuta dagoena. Eta helburu multzo horren etengabeko ebaluaketa egitea proposatuko da, strategiaren ezarpenak sorturiko eraginekin batera.

Lehendabiziko pausuen artean egoki da, honezkero martxan dagoen talde eragilearen eraketa formala burutzea. Berau honela osatuko da: Informatika Saileko arduraduna, Idazkaritzako Administrazio Elektronikoaren teknikari arduraduna, idazkaria, artxibaria eta Idazkaritzako herritarren harretako zerbitzuko administraria.



Plan Estrategikoaren dokumentua eta ondorioak 2021eko uztailaren 20ko Ogasun, Kontu-berezien eta Beste Gaien Batzordean aztertu ondoren, aldeko diktamena jaso du.

Guzti hau kontuan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

LEHENA: Oiartzungo Udalean administrazio elektronikoa ezartzeko idatzitako Plan Estrategikoa, eranskinean jasota dagoen moduan, onartzea.

BIGARRENA: Plana aurrera eramateko talde eragilea sortzea, arestian adierazitako egiturekin.

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Oiartzunen, sinaduraren egunean.